



Lehiaren
Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca
de la Competencia

GASTEIZKO TXANDAKAKO APARKALEKU PUBLIKO JAKIN BATZUEN DOAKOTASUNAREN INGURUKO TXOSTENA

LEAren proiektu-zenbakia: 96 -PROM- (2017)

Aurkibidea:

TOCOsoko bilkura

María Pilar Canedo Arrillaga andrea, presidentea

Natividad Goñi Urriza andrea, kidea

Rafael Iturriaga Nieva jauna, kidea

Idazkaria: Alfonso Gómez Fernandez jauna

Lehiaren Euskal Kontseiluaren (LEK) Osoko Bilkurak, arestian aipatutako osaera duenak, Arabako Enpresarien Sindikatuak egindako kontsulta dela eta txosten hau ematea erabaki du 2017ko martxoaren 9ko bileran.

I.- Txostenaren xedea

1. Arabako Enpresarien Sindikatuak (SEA-Arabako Enpresariak) kontsulta bat egin zion Lehiaren Euskal Agintaritzari (LEA) Gasteizko Udalaren (Udala) erabakiaren eskumenaren bateragarritasun posibleari buruz. Hain zuzen, Udalak Gasteizko Zabalguneko eta Alde Zaharreko aparkaleku jakin batzuetan bakarrik, egun zehatz batzuetan, erabiltzaileei kotxea doan uzteko aukera ematea erabaki zuen¹.

2. Udalak, *Gazteiz On* elkarteak eskatuta, erabiltzaile guztien eskura jarri ditu, doan, **Iradier Arenako** txandakako aparkalekuak 2013ko, 2014ko, 2015eko eta 2016ko abenduko eta urtarrileko zenbait egunetan².

¹ Zabalgunekak, txostenaren ondorioetarako, Zabalgunea eta Babesgabetuak auzoak barne hartzen ditu. Han dago hiri-bilbe nagusia, eta zerbitzuen jarduerak dira nagusi; bereziki, merkataritza-jarduerak. Ikusi mapa URL honetan: <http://www.gasteizhoy.com/wp-content/uploads/2014/03/Barrios-de-Vitoria.jpg>.

² Ikusi GASTEIZKO UDALA. Enplegu Sustapenaren, Garapen Ekonomiko Iraunkorraren eta Sozietate Publikoen Batzordearen 2015eko urtarrilaren 12ko ohiko bilkuraren akta. 2. gaia. Hemen eskuratu daiteke: <http://www.Vitoria.org/wb004/docs/es/Acta-5352.pdf>.



Gasteiz On Gasteizko hiriguneko merkatariak, ostalariak eta zerbitzuen enpresak biltzen dituen elkarte da. Hauxe da elkartearen helburua: “sektorearen interes legitimoak babestea, hiriaren merkataritza-ehuna berritzen eta hobetzen laguntzea, elkartekideei lehiatzeko tresnak ematea eta, jakina, hiria egitea³”.

	Kanpaina	Datak	Onuradunak
Iradier Arena	2013-2014ko Gabonak	2013ko abenduaren 21a eta 23a	Edozein erabiltzaile
		2014ko urtarrilaren 3a eta 4a	
	2014-2015eko Gabonak	2014ko abenduaren 20a, 22a, 23a eta 24a	
		2015eko urtarrilaren 2a, 3a eta 5a	
		2015eko abenduaren 19t k 24ra	
2015-2016ko Gabonak	2016ko urtarrilaren 2a, 4a eta 5a.		

Iturria: Gasteizko Udala, enpresa ustiatzaileak. Geuk egina.

3. Udalak Alde Zaharreko TAO txartela duten auzotarren eskura jarri ditu, doan, Artiumeko txandakako aparkalekuak 2014., 2015. eta 2016. urteetan, Erdi Aroko azoka dela eta. Neurriaren onuradunek ezingo lukete Erdi Aroko azokak hartutako espazio publikoan autoa utzi.

	Kanpaina	Datak	Onuradunak
Artium	2014ko Erdi Aroko azoka	2014ko irailaren 26t k 28ra	TAO txartela duten Alde Zaharreko auzotarrak
	2015eko Erdi Aroko azoka	2015eko irailak 25-27	
	2016ko Erdi Aroko azoka	2016ko irailaren 23t k 25era	

Iturria: Gasteizko Udala, enpresa ustiatzaileak. Geuk egina.

4. Udalaren Ekonomia Sustapenaren Sailak herritarren txandakako aparkaleku horietako egonaldiak ordaindu dizkio Gasteizko Hiri Garraioak, SA-ri (TUVISA) - udalaren baliabide propioa, bi aparkalekuak zuzenean kudeatzen dituen-.

Aparkalekua	Data	Zenbatekoa eurotan ⁴
Iradier Arena	2015-2016	6.165
	2014-2015	4.795
	2013-2014	--
Artium	2015	519,85
	2014	757

5. Txostena LEAk eman du, Euskal Autonomia Erkidegoko esparruko lehia askearen inguruko gaien aholku-organo gisa, Lehiaren Euskal Agintaritzaren Legearen 3.5 artikuluan ezarritakoarekin bat eginez⁵.

³ GASTEIZ ON, *Tu comercio amigo*. <http://www.gasteizon.com/es/html/3/896.shtml>

⁴ Txostenen honetako prezioek BEZa barne dute, berriaz adierazitakoek izan ezik.

⁵ 1/2012 Legea, otsailaren 2koa, Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzkoa. EHAA, 2012ko otsailaren 9koa, 29 zenbakia.



Halaber, LEAk merkatuetan lehia mantentzeko helburua duten herri-administrazioei proposamenak egiteko duen eskumena baliatuz eman da (erakunde horren legearen 3.3.d artikulua).

6. Txostena egiteko, LEAk honako erakunde hauei eskatu die informazioa:

- Udala
- Gasteizko Hiri Garraioak, SA (TUVISA)
- Leku hauetako aparkaleku publikoen emakidadun pribatuak: Katedral Berria, Juan Aiala, Amerika eta Santa Barbara plaza.
- Dendaraba eta Francia IV aparkaleku pribatuen enpresa ustiatzaileak.

II. Lehian izan dezakeen eragina

1. Merkatuaren deskribapena

7. Kontsulta **txandakako aparkalekuei** buruzkoa da. Merkataritzako jarduera gisa, pertsona batek ibilgailu motordunak aparkatzeko lagatzen duen lokal edo esparru bateko espazioa da (horren titularra izanda), okupatzen duten bitartean zaintza-betebeharrak betetzen dituena. Pertsona horri zenbateko jakin bat ematen zaio, espazioa okupatzen den denboraren arabera⁶.

Titulartasun publikokoa edo pribatukoa izan daiteke. Lehenengoaren kasuan, horren kudeaketa zuzeneko ala zeharkakoa izan daiteke. Zeharkako kudeaketa administrazioiko emakidaz egiten da⁷.

Bezero nagusiak ibilgailua helmugatik hurbil utzi nahi duten auto-gidariak dira, aparkalekuen titulartasuna eta kudeaketa zeinahi ere den. Bezeroarentzat honako faktore hauek izan daitezke erabakigarriak aparkalekua aukeratzeko: aparkalekuaren kokapena eta eragin-eremuko jarduerak, eremu horretako lekuen erabilgarritasuna eta sarbidearen erraztasuna⁸.

⁶ Ikusi azaroaren 14ko 40/2002 Legearen 1. artikulua, ibilgailuak aparkatzeko kontratua arautzen duena. BOE, 2002ko azaroaren 15ekoa, 274. zenbakia. Hemen eskuratu daiteke: <https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2002-22187>.

⁷ Txandakako aparkalekuen alternatiba gainazaleko aparkaleku arauak dira –TAO Gasteizen–, udal-ordenantzan jasotakoak: gidariak bide publikoan aparkatzeko eskubidea du aldi labur eta mugatu batean, zaintza-zerbitzurik jaso gabe eta eguneko ordu batzuetan bakarrik ezarrita egongo den tasa ordainduta.

⁸ LEHIAREN DEFENTSARAKO ZERBITZUA. *Lehiaren Defentsarako Zerbitzuaren txostena* N-04061 Cintra/Eguisa, Madril, 2004.



8. Gasteizko erdialdean lurpeko txandakako aparkalekuak daude, eta horiek ordainpekoak dira 24 orduetan⁹.

Udala horietako seiren titularra da. Bi zuzenean kudeatzen dituzte baliabide propio baten bidez eta lau zeharka administrazioko emakiden bidez. Azken horien helburua aparkalekua eraiki eta ustiatzea da, edo ustiatzea bakarrik¹⁰. Guztiak daude 24 orduz irekita.

Aparkalekua	Jabea	Enpresa ustiatzailea	Ustiapena	Tokiak
Artium	Udala	TUVISA	Zuzeneko kudeaketa	149
Katedral berria	Udala	Estacionamientos urbanos el norte, S.A.-ESTURNOR	Emakida	353
Dendaraba	Pr batua	Parking Denda, S.A.	-	123
Francia IV	Pr batua	Pan IV, S.L.	-	115
Iradier Arena	Udala	TUVISA	Zuzeneko kudeaketa	298
Juan Aiala	Udala	Sarkis aparcamientos, S.L.	Emakida	232
Amarika	Udala	Indigo infra España, s.a. (lehen vinci park, S.A.)	Emakida	224
Santa Barbara	Udala	Ipark estacionamientos y servicios de movilidad, S.A.	Emakida	613

Iturria: Gasteizko Udala. Geuk egina.

Gainera, aire zabaleko txandakako aparkaleku hauek daude.

Aparkalekua	Jabea	Enpresa ustiatzailea	Ustiapen-erregimena	Tokiak	Ordutegia
Aldabe	Udala	Zeharkako kudeaketa ("Arazoak" Arabako Autismo Espektoaren Nahasteak E karteak)	Hitzarmena ¹¹	76	Etengabea. Ordainpekoa eta zaintzapean: astelehen-ostiral 8:00-22:00 eta larunbatetan 8:00-14:00 ¹² .
Tren-geltokia	Udala	Zeharkako kudeaketa ("Arazoak" Arabako Autismo Espektoaren Nahasteak E karteak)	Hitzarmena ¹³	45	Etengabea. Ordainpekoa eta zaintzapean: astelehen-ostiral 8:00-22:00 eta

⁹ Europa aparkalekua, titulartasun publikokoa, itxita dago.

Kontsultaren eraginpeko eremuetatik gertu dauden aparkalekuak hautatzeko, honako hauek barne hartzen dituen perimetroa kontuan hartu da: Errege-erregina Katolikoaren kalea iparraldean, Unibertsitateko ibilbidea hegoaldean, N-622 kalea mendebaldean eta Madril kalea ekialdean.

¹⁰ Ikusi toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 85.3. artikulua. BOE, 1985eko apirilaren 3koa, 80. zenbakia. Testu kontsolidatua: <https://www.boe.es/buscar/pdf/1985/BOE-A-1985-5392-consolidado.pdf>.

¹¹ 1992ko apirilean, udalak Arazoak elkartearekin hitzarmen bat sinatu zuen, eta hori aparkaleku horiek zaintzeaz eta zerbitzuak kobratzeaz arduratzen da. Ikusi horri buruz agiri honek dioena: SINDIKOA HERRITARREN DEFENDATZAILEA, *Aldabe eta RENFEko aparkalekuen kudeaketa*, Erreg. zk.: 1966/13 Vitoria-Gasteiz, 2015eko uztailak 22. Eskuratzeko: <http://www.vitoria-gasteiz.org/wb021/http/contenidosEstaticos/adjuntos/es/17/72/61772.pdf>. Horren arabera, leku berezi horien aparkalekuen zaintza eta kontrola udalak kudeatu ahalko litzuzke zuzenean edo zeharka, zerbitzu publikoen kudeaketa-kontratu baten bidez. Horretarako, kontratazio publikoari buruzko araudiak ezarritako izapideak egin eta printzipioak errespetatu beharko lirarteke.


¹² Gehienez 90 minutuz aparka daiteke.

¹³ Aldabe aparkalekuko erregimen bera.



					larunbatetan 8:00-14:00.
San José Poliklinika	Mutualia	lparc estacionamientos y servicios de movilidad, S.A.	Kontratu publiko bat. ¹⁴	185	Astelehenetik igandera 9.00etat k 23.30era.

Hau da kaltetu guztien kokapena.



Txandakako aparkalekuen ustiapenak tokiko merkatua du, eta erabiltzaileek bertaratu nahi duten eremuko aparkalekuak baino ez dituzte kontuan hartzen¹⁵.

Kontsulta honen eraginpeko bezalako eremuetan, aparkalekuen eragin-eremua erabiltzailea azken helmugaraino oinez egiteko prest dagoen ibilbideak mugatzen du. Horren luzera (metroak) zein denbora neur daitezke (minutuak)¹⁶.

¹⁴ MUTUALIA 2015eko urteko memoria. Hemen eskuratu daiteke:

http://www.mutualia.es/opencms/export/shared/images/stories/pdf/Memoria_2015/memoria-Mutualia-2015.pdf

¹⁵ LEHIAREN DEFENTSARAKO ZERBITZUA. *Lehiaren Defentsarako Zerbitzuaren txostena N-04061 Cintra/Eguisa ...Cit.* Txostenean adierazten da merkatu geografiko zonalak zehaztea posible izango litzatekeela, aparkalekuaren inguruko eremuak mugatuta. Aparkaleku horiek kontsumitzailearentzat eta LEHIAREN BATZORDE NAZIONALarentzat ordezarritasuna zehaztu dezakeen distantzia edo denbora jakin bat islatzen dute. 2010eko urtarrilaren 20ko ebazpena, Ex. C-0201/09, INTERPARKING/METROPARK.

¹⁶ LEHIAREN BATZORDE NAZIONALA 2010eko urtarrilaren 20ko Exp. C-0201/09, INTERPARKING/METROPARK ebazpenak 700 eta 1.500 metroko distantziak (isokrona-erradioak) aurreikusten ditu. Distantzia horiek desplazamenduaren helmugaren arabera alda daitezke. Ikusi: VICTORIA TRANSPORT POLICY INSTITUTE, TDM *Encyclopedia- Shared Parking Sharing Parking Facilities Among Multiple Users*. Hemen eskuratu daiteke: <http://www.vtpi.org/tdm/tdm89.htm> Horrek merkataritza-jardueretarako 366 metroko distantzia eta bizitegi-erabilerarako 244 metro distantzia zenbatesten du.



9. Udalaren esku-hartzeak aparkalekuak ustiatzeko bi eremuri eragiten dio:

- Alde Zaharrari eta
- Zabalguneari.

10. Alde Zaharreko eremuan ez dago aparkalekurik. Honako hauek inguratzen dute: Artium aparkalekuak –publikoa eta zuzenean kudeatua-, Juan Aialak –emakidadun publikoa-, Francia IV-ak –pribatua-, Katedralekoak –emakidadun publikoa-, Dendarabak –pribatua-, Aldabek –Arazoakek kudeatutako publikoa-, Amarikak –emakidadun publikoa-, Poliklinikakoak –lpark-, eta Santa Barbara plazakoak –pribatua-.

TAO txartela duten egoiliarrek horietako edozein aukeratuko dute, haien bizilekuen gertutasunaren arabera.

2014ko eta 2015eko Erdi Aroko azoketan, Artium aparkalekua 74 eta 64 ibilgailuk erabili zuten, hurrenez hurren.

11. Zabalgunearen kasuan, aparkalekuaren erabiltzaile potentzialak eremu horretara era erosoan sartu nahi duten herritar guztiak dira. Helburua erosketei eta ostalaritza-establezimenduetako kontsumoari laguntzea da. Aurrez ezarritako irizpideari jarraituz, hauek dira eremu horren eraginpeko aparkalekuak: Iradier Arena –publikoa eta zuzenean kudeatua-, Santa Barbara –emakidaduna-, Amerika –emakidaduna-, Francia IV –pribatua-, Katedral Berria –emakidaduna-, Juan Aiala –emakidaduna-, Artium –publikoa eta zuzenean kudeatua-, Aldabe –publikoa eta Arazoakek kudeatua-, Geltokikoa –publikoa eta Arazoakek kudeatua-, Poliklinikakoa –lpark-, Santa Barbara plazakoa –pribatua- eta Dendaraba –pribatua-.

12. Iradier Arena eta Artium aparkalekuak zuzenean kudeatzen ditu udalaren Gasteizko Hiri Garraioak, SA (TUVISA) baliabide propioak. Kudeaketa-gomendioan, udalak TUVISAri ezartzen dio aparkaleku bakoitzetik lortutako irabazi errealeen % 10eko kanona ordaintzea. Gainera, sor litezkeen ustiapen-defizitengatik udalak TUVISA konpentsatzea aurreikusten da. Udalak argitaratutako TUVISAren azken urteko kontuak 2014koak dira¹⁷. Horietan, bi aparkalekuen ustiapena banakatuta dago. Iradier aparkalekuaren kasuan, 7.095 euroko galerak argitaratu ziren. Artiumen kasuan, 39.892 euroko galerak dira.

¹⁷ TUVISA, 2014ko abenduaren 31ko urteko kontuak kudeaketa-txostenarekin batera Gasteiz, 2015. Eskuratzeko: <http://www.vitoria-gasteiz.org/wb021/http/contenidosEstaticos/adjuntos/eu/46/96/64696.pdf>



Enpresa emakidadunek administrazioari emate-kontratu bakoitzean zehaztutako urteko kanon bat ordaindu behar diote¹⁸.

Zeharkako kudeaketa duten aparkaleku publikoak				
	Kanona			
	2013	2014	2015	2016
Amarika	IRABAZIEN % 3 (BEZ GABE)			
Katedral B	18.611,27 €.	19.365,03 €	20.143,50 €	20.850,54 €
J. Aiala	14.801,21 € + 2013ko fakturazioaren % 6 (BEZ gabe)	15.400,66 € + 2013ko fakturazioaren % 6 (BEZ gabe)	16.019,76 € + 2014ko fakturazioaren % 6 (BEZ gabe)	16.582,06 € + 2015eko fakturazioaren % 6 (BEZ gabe)
Santa Barbara*	750.000 €.	375.000 €	918.947,36 €	912.514,73 €

*2014. urtetik aurrera, kanona urtetik urterako aldirako zehazten da. Aldi hori urte bakoitzeko ekainean hasten da. Iturria: Gasteizko Udala.

ARAZOAKek erabiltzaileei kobratutako tarifen % 5eko kanona ordaindu behar dio udalari.

13. Hauexek dira aparkalekuek kobratzen dituzten tarifak:

Tartea	Tarifak minutuko, eurotan ¹⁹								
	TUVISA ²⁰		Emakida ²¹				Pribatuak ²²		
	Iradier	Artium	S. Barbara	J. Aiala	Katedral B	Amarika	Denda	Francia	Polikl.
1. min	0,5000	0,5400	0,7376	0,645777	0,6458	0,6757	0,5901	0,6100	0,0300
2-30 min	0,0175	0,0177	0,0284	0,0312	0,0312	0,0246	0,0240	0,0275	0,0300
31-60 min	0,0225	0,0177	0,0344	0,0312	0,0312	0,0246	0,0240	0,0275	0,0300
61-120 min	0,0225	0,0177	0,0339	0,0312	0,0312	0,0282	0,0240	0,0275	0,0275
121-180 min	0,0225	0,0177	0,0339	0,0312	0,0312	0,0246	0,0240	0,0275	0,0255
181-600 min	0,0225	0,0177	0,0339	0,0312	0,0312	0,0246	0,0240	0,0275	0,0255
+ 600 min	0,0225	0,0177	0,0339	0,0312	0,0312	0,0246	0,0240	0,0275	0,0255
Gehienez eguneko	12,7500	7,9500	19,0091	18,9000	18,9000	15,6500	15,8999		10
Tarifak tarteko, eurotan									
Tartea	Aldabe	Renfe							
30 minutura arte	0,7000 €.	0,9000 €							
60 minutura arte	1,4000 €.	1,8000 €							
90 minutura arte	2,1000 €.	2,7000 €							

14. Gasteizen txandakako aparkalekuen eskaintza publikoa zein pribatua dago.

Udala operadore ekonomikoa da bi aparkaleku zuzenean kudeatzen dituelako - TUVISAren bidez-.

¹⁸ TUVISAk bi aparkaleku gehiago kudeatzen ditu Gasteizen: Molinuevo eta Zaldiaran aparkalekuak. Ez dute txandakako aparkalekurik eskaintzen, eta, gainera, bigarrena azterketa honetarako mugatu dugun perimetrotik kanpo dago.

¹⁹ Tarifak 2016ko bigarren hiruhilekokoak dira. Iturria: Gasteizko Udala; TUVISA, enpresa ustiatzaileak. Geuk egina.

²⁰ Udalak ezartzen ditu erabiltzaileei kobratzeko tarifak.

²¹ Enpresa emakidadunek erabiltzaileei kobratzen dizkieten tarifak urtero eguneratu daitezke, eta emate-kontratuari jarraitzen diote.

²² Aparkaleku pribatuek horiek kudeatzen dituzten enpresek libreki erabakitako prezioak kobratzen dizkiete erabiltzaileei.



Halaber, udalak eskumenak ditu aparkalekuen gainean, baita merkatuaren funtzionamenduan eragina izan dezakeen jarduera ekonomikoa sustatzeko ere²³. Eskumenak baliatzeko, jarduera ekonomikoak egin ditzake, baina, betiere, berrmatuta badago haren eskumenak aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasuneko irizpideen arabera beteko dituela²⁴.

Txostenaren 2. eta 3. paragrafoetan ezarritakoari jarraituz, udalak aparkalekuak doan eskaini dizkie zenbait erabiltzaileri urteko bi alditan (gutxienez hiru urtean), eta, LEAk egindako galderaren erantzunean, ez ditu hartutako erabakiak arrazoitu. LEAren azterketa udalaren web-orrian eskuratu daitezkeen datuetan oinarrituz egin da.

LEAk egindako kontsultaren erantzunean, udalak ez du adierazi neurri baliabide propioarentzat bakarrik ireki duela.

Eskumenak baliatuz administrazioak neurri bat hartzen duenean, eta neurri horrek merkatuan eragina izan dezakeen operadore ekonomikoki bati abantaila ematen dionean, arrazoi hauetakoren batekin justifikatu beharko litzateke:

- Merkatuan akatsak egotea; hau da, merkatua baliabideak esleitzeko mekanismo hobereana ez izatea, edo
- beste helburu batzuk bilatzea; adibidez, birbanatzeari dagokionez merkatuaren emaitzak hobetu nahi izatea edo ekonomikoak ez diren helburuak lortu nahi izatea²⁵.

Administrazioak esku hartzeak onurak izan ditzake -onura horiek ekonomikoki kuantifikatu beharko lirateke kostekin alderatzeko-, baina baita alde txarrak ere. Azken horiek minimizatzeke, alde aurretik ebaluatu behar da pentsatutako neurriak beharizan-printzipioa, egokitasunaren eta lehiaren gutxieneko murrizketaren printzipioa, eta proportzionaltasun printzipioa betetzen dituen ala ez.

“Ebaluazio horrek funtsezko hiru urrats ditu:

1. Beharizana: laguntzak merkatuaren akats bati edo interes komuneko helburu bati erantzun behar dio; esaterako, birbanaketari edo ekonomikoak ez diren beste helburu batzuei. Horretarako, funtsezkoa da lortu nahi den helburua ondo identifikatzea.
2. Egokitasuna eta lehiaren gutxieneko murrizketa: laguntza merkatuaren akatsari aurre egiteko edo interes komuneko helburua lortzeko neurri egokia izan behar da. Hortaz, administrazioak esku hartzeko beste modu batzuk edo laguntzeko tresnaren beste diseinu batzuk aztertu behar dira. Gainera, ez lirateke alboratu behar merkatuak ongizatea hobetzeko eskain ditzakeen konponbideak.

²³ Udalak berezko eskumenak ditu trafikoaren, ibilgailuak aparkatzearen eta mugikortasunaren inguruan (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeko 25.2.g artikulua).

²⁴ Ikusi toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen Legearen 86. artikulua.

²⁵ CNMC *Laguntza publikoak ebaluatzeke metodologia-agiria*. PRO/CNMC/001/16, Madril, 2016. Hemen eskuratu daiteke: <https://www.cnmc.es/file/107238/download>.



3.- Proporzionaltasuna: neurriak helburua lortzeko ezinbestekoak diren elementuak barne hartu behar ditu. Gainera, laguntzaren onurek lehiaren gaineko kostu potentzialak gainditu behar dituzte, baina baita diru-kutxa publikoen eraginkortasunaren gainekoak ere²⁶.

2. Udalaren esku-hartzearen azterketa

15. Udalak kudeatutako aparkalekuak merkatuan lehiatzen dira emakidadun pribatuek, elkarte batek eta enpresa pribatuek ustiatutako aparkalekuekin: ESTURNOR (Katedrala); Sarkis Aparcamientos, S.L. (Juan Aiala); Indigo Infra España, S.A (Amarika); Ipark Estacionamientos y Servicios Movilidad S.A. (Santa Barbara eta Poliklinika); PAN IV S.L. (Francia IV); Arazoak, (Aldabe eta Geltokia), eta Parking Denda, S.L. (Dendaraba).

Udalak diru-laguntzak ematen dizkie erabiltzaileei ibilgailuak doan aparka ditzaten -egun jakin batzuetan-, baina TUVISA baliabide propioak kudeatutako aparkalekuetarako bakarrik. TUVISAk aparkalekuak ustiatzen ditu eta erabiltzaileen egonaldiak fakturatzen dizkio udalari²⁷. Gainerako operadore ekonomikoei ez zaie neurrian parte hartzeko aukera eman.

Horrela, udalak eskaria bere aparkalekuetara helbideratzen du, eta horiek etekina aterako dute erabiltzaileen eskaria handituko delako, doako zerbitzua izateagatik.

Hortaz, udalak ezberdin tratatzen ditu merkatuan esku hartzen duten operadore ekonomikoak, eta aztertu behar da ea jokabide hori justifika daitekeen, hau da, ea interes publikoko helburu bat lortzeko beharrezkoa, proportzionala eta bereizkeriarik gabekoa den.

Udalaren esku-hartzeari dagokionez, merkatuan akatsik aurkitu ez denez, interes komuneko helburua identifikatu behar da bi kasu horietan²⁸.

²⁶ CNMC *Laguntza publikoak... cit.*

²⁷ Ikusi Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 2. artikuluan ezarritako diru-laguntzaren azalpena. 2003ko azaroaren 18ko BOE, 276. zk. <http://www.boe.es/buscar/pdf/2003/BOE-A-2003-20977-consolidado.pdf>.

²⁸ Irizpide horiek aplikatzeari buruz, ikusi: LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZA. *Lehiaren Euskal Agintaritzaren gomendioa Bizkaiko Foru-aldundiari "Bono denda" kanpainaren esparruan emandako diru-laguntzari buruz*. Bilbo, 2014. Hemen eskuratu daiteke: http://www.competencia.euskadi.eus/contenidos/informacion/informes/es_informes/RECOMENDACIONES%20BONODENDA%2014%20DE%20ABRIL%20DE%202014.pdf eta LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZA. *Euskotrenek lehiaketa publikoetan enpresa pribatuekin lehiari parte hartzeari buruzko txostena*, Bilbo, 2013. Hemen eskuratu daiteke: http://www.competencia.euskadi.eus/contenidos/informacion/informes/es_informes/INFORME%20JJG%20BIZKAIA%20web.pdf. 7. puntuari bertan lehiaren distortsio hori definitu da –tokiko erakundearen esku-hartzeari dagokionez– jardun publikoak operadore publikoen posizioari



A. Erdi Aroko azokan hartutako neurria

16. Erdi Aroko azokak iraun bitartean, TAO txartela ordaindu duten Alde Zaharreko auzotarrek ezin dute bide publikoan ibilgailua utzi. Horregatik, udalak hori konpentsatzea erabaki zuen, aparkaleku batean doan aparkatzeko aukera emanez²⁹.

17. Udalak lortu nahi duen helburua publikoa da eta ez da ekonomikoa, hori ez da eztabaidagarria.

Hala ere, ez dago jasota udalak ekimen horretan parte hartzeko aukera eman dienik gainerako operadore ekonomikoei, hain zuzen, azokatik gertu zerbitzu berak eskaintzen dituzten operadore ekonomikoei.

Alde Zaharretik gertu dauden aparkaleku guztiei emango balitzaie neurrian parte hartzeko aukera, zalantzarik gabe, onuragarria izango litzateke herritarrentzat eta eskaintzen zaien arreta hobetuko litzateke.

Udalak zenbait aukera ditu helburua lortzeko, lehia gutxiago murrizten duten neurrien bidez, orain artekoarekin ez bezala.

Horien artean aukera hau azpimarratu daiteke: gertuko aparkaleku interesdun guztiek egitea udalari zerbitzu emateko eskaintzak, eta horrek hoberena aukeratzea. Operadore guztiek errespetatu behar dituzte lehiaren eta lehia-neutraltasunaren arauak (baita publikoek ere). Gainera posible izango litzateke udalak parte hartzen duten aparkalekuei ordaintzeko prezio bat zehaztea, erabiltzaileei doako zerbitzua eskaintzeagatik. Halaber, gertuko aparkaleku guztiei ekimenean parte hartzeko aukera eskaini ahal zaie, eta haiek erabakiko dute interesatzen zaien ala ez³⁰. Erabaki hori hartzeko, kontuan hartu behar da Artium aparkalekuaren prezioa gainerakoena baino baxuagoa dela kasu gehienetan, baina aparkaleku horrek udalak estaltzen dituen urteko galerak eragiten dituela (39.000 euro 2014an).

pribilegioak emateko aukera gisa, hartara abantailak lortzen dituzte lehian, gainerako operadoreek ez bezala.

²⁹ Ikusi GASTEIZKO UDALA. *Udalaren bandoa, 2015eko irailaren 21eko Erdi Aroko azokari buruzkoa*. Hemen eskuratu daitezke: https://sedeelectronica.Vitoria.org/j30-01s/contenidoAction.do?uid=app_j07_2015_1526&locale=es&idioma=es eta GASTEIZKO UDALA *Erdi Aroko XV. azoka*, Gasteiz, 2016ko irailaren 19a https://sedeelectronica.Vitoria.org/j30-01s/contenidoAction.do?idioma=es&uid=app_j07_2016_1061.

³⁰ Kasu horretan, udalak ezarritako prezioa aparkaleku batzuek erabiltzaileei kobratzen dietena baino baxuagoa izan daiteke. Kasu horretan, operadoreak erabakiko du udalaren prezioaren diru-laguntza jaso nahi duen, adierazitako egunetan erabiltzaile kopurua handitzearen truke.



B Gabonetako kanpainan hartutako neurria

a. Merkataritza dinamizatzeko helburua

18. Gabonetako kanpainan, udalaren helburu nagusia Zabalguneko merkataritza eta ostalaritza dinamizatzea da³¹.

2014-2015eko Gabonetako merkataritza-kanpainaren harira, Gasteizko Udaleko Ekonomia Sustapenaren zinegotziak hauxe adierazi du:

“Ekimenaren helburua Gabonetako merkataritza-kanpainan erdialdean aparkatzeko laguntza ematea da, tokiko merkataritza sustatzeko. Ikusi dugu oso emaitza onak lortu direla, izan ere, jende ugari etorri da Zabalguneko eremura eta merkatarien iritzia ere oso ona izan da. Neurri horrekin jarraituko dugu, hiriarentzat eta merkatarientzat ona delako”.

Halaber, 2015-2016ko Gabonetako merkataritza-kanpainaren harira, Gasteizko Udaleko Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren zinegotziak hauxe adierazi du³²:

“Ez dago zalantzarik Iradier Arenaren moduko aparkaleku baten erabilera errazteak bezeroak (batez ere urrunen dauden auzoetakoak) erakartzeko gaitasuna handitzen duela erdialdeko merkatarien onurarako. Gainera, sektore batzuentzat onuragarriak diren sinergiak sortzen dira; ostalaritzarako, adibidez. Aparkalekua jende gehiagok ezagutzea ere ahalbidetzen dugu, urteko beste sasoi batzuetan erabilera sustatzeko”.

19. Lehenik eta behin, neurriaren helburua ekonomikoa da, eta Gasteizko Zabalguneko merkataritza- eta ostalaritza-establezimenduak abantaila-egoeran jartzen ditu beste batzuekin alderatua.

Neurriarekin, udalak portaerazko jarraibideak sustatzen ditu kontsumitzaileek erosketak hiriko eremu jakin batean egiteko, gainerako merkataritza- eta ostalaritza-ehunaren kalterako, hau da, administrazioaren jardueran agindu behar duen neutraltasunaren kontra.

20. Bigarrenik, baieztatu behar da ez dagoela zuribiderik neurriak udalak zuzenean kudeatutako aparkalekuaren doako erabilera bakarrik baimentzeko. Ikusi dugunez, merkataritza-eremutik gertuago dauden aparkalekuak daude,

³¹ Ikusi GASTEIZKO UDALA. 2015eko urtarrilaren 12ko prentsa-oharra, Iradier Arenan doan aparkatzeko egunei buruzkoa. Hemen eskuratu daiteke: <http://blogs.Vitoria.org/medios/2015/01/12/los-7-dias-gratuitos-del-parking-iradier-arena-durante-la-campana-navidena-atrajeron-a-un-total-de-4-399-vehiculos/>.

³² Ikusi GASTEIZKO UDALA. 2015eko azaroaren 18ko prentsa-oharra, 2015-2016ko Gabonetako merkataritza-kanpainari buruzkoa. Hemen eskuratu daiteke: <http://blogs.Vitoria.org/medios/2015/11/18/el-parking-del-iradier-arena-sera-gratuito-durante-los-principales-dias-de-la-campana-comercial-navidena-2015-2016/>.



eta ez dago jasota udalak neurrian parte hartzeko aukera eskaini dienik. Halaber, ez dago udalaren erabakia justifikatzeko interes orokorreko arrazoirik.

21. Hirugarrenik, udalak doako aparkalekuaren eremuko saltokietan izandako eragina kuantifikatu du, eta hauxe adierazi du: Iradier Arena aparkalekutik gertuen dauden eremuetan % 55 izan dela eta, urrunago dauden eremuetan, % 23³³.

Baieztapen horrek agerian jartzen du neurria, ezarri den moduan, desegokia dela. Izan ere, Zabalguneko merkataria guztiei laguntzeko aparkaleku bakarraz baliatu da, eta horrek abantaila handiagoa eragin die saltoki batzuei (Iradier aparkalekutik gertuen daudenei) beste batzuei baino; Zabalguneko saltokien artean ere gertatu da hori.

Azken disfuntzio hori neurria eragin-eremuko aparkaleku guztiei irekiz zuzendu zuten.

b. Urteko gainerako sasietan Iradier aparkalekuaren erabilera sustatzea

22. Gainera, udalak adierazi du neurriarekin herritarrek aparkalekua ezagutzea lortu nahi duela, urteko gainerako sasietan erabilera sustatzeko.

Urtetik urtera, Iradier Arena aparkalekua gero eta egun gehiagotan izan da doakoa kanpainak iraun duen bitartean: lau egun 2013-2014an, zazpi 2014-2015ean eta bederatzi 2015-2016an (4tik 9ra igaro da). Proporzionalki, ez da gauza bera gertatu egun horietan han aparkatu duten ibilgailuen kopuruarekin (eguneko 600 erabiltzaile izatetik, azken edizioan 480 izatera igaro da).

23. Udala bere merkatuko posizioa hobetzen saiatzen da lehiakideei dagokienez. Hori operadore ekonomikoen arteko berdintasun-printzipioaren eta diskriminaziorik ezeko printzipioaren kontrako neurriekin egiten du, hau da, merkatuaren lehia askearen kontrako neurriekin.

24. Kontuan hartuz neurritik onura atera duten eremuko merkatariek eta ostalariak proposatu dutela, balioetsi beharko litzateke ea neurria, eremuko aparkaleku guztiei irekita dagoena, elkarteko kideek ordaindu dezaket.

³³ Ikusi GASTEIZKO UDALA. Aipatutako 2015eko urtarrilaren 12ko prentsa-oharra.



III. Ondorioak

LEHENENGOA. Eztabaidagarria ez den helburu publiko bat lortzeko (adibidez, TAO txartela duten eremu bateko egoiliarrei aparkatzeko leku bat ematea ibilgailua utz dezaketen espazio publikoa okupatzen denean), udalak abantaila-egoeran jarri ditu merkatuan zuzenean kudeatzen dituen aparkalekuak, gainerako operadore eta erabiltzaileen kalterako. Neurria aipatutako helburua lortzen lagundu dezaketen operadore ekonomiko guztientzat ireki behar du, titulartasunaren araberrako diskriminaziorik egin edo onartu gabe.

BIGARRENA. Udalak egiaztatu behar du ea herritarrentzako ongizatea sortzen duen Gasteizko Zabalgunearen eremuko zenbait aparkalekutan ibilgailua doan uztea eskaintzen duenean eta, horren ondorioz, eremu horretako establezimenduak abantaila-egoeran jartzen dituzenean, beste batzuen kalterako.

HIRUGARRENA. Udala zerbitzuaren arautzailea eta kudeatzailea (operadore ekonomikoa) denez aldi berean, lehia-neutraltasunaren printzipioaren kontrakoa da zuzenean kudeatzen dituen operadoreen eskaria sustatzeko neurriak hartzea lehiakideen kalterako; hortaz, ez du hori egin behar.